



MAKILEZ LAGUNDURIKO DANTZA BEREZIAK

Ohiko moduan, Abaltzisketako txantxoak eta Amezketako talaiak atera ziren atzo, euren dantzak eskaintzera » 7

info


TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza

Astelehena
2009-02-23

VIIURTEA 1.637.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



PROTAGONISTEN TXANDA

TOLOSA Dianaren doinuek, hala eskatu ostean, karrozen, konpartsen eta mozorroen kolorez bete ziren atzokoan herriko kaleak; gaur, sokamuturra, aisialdi taldekoen dantzak, zezenak, txarangak, zezen suzkoa, kontzertuak... 3-5

K **Komikia****Martin Mantxo**A **Argazki zaharra**

«Tolosako Inauterietatik guztia gustatzen zait, nire ustez, jai hauek gaindiezinak baitira»

ISIDRO BELOKI ARRUBARRENA > Inauterizalea

Tolosa » Azken urteetan, pena handiarekin, baina kanpoan izaten da Inauterietan; Zaldunita bitarte gozatzen ditu.

NOELIA LATABURU

Egun gaztetan bezain beste bizi ez dituen arren, inauterizalea da Isidro Beloki (Ibarran jaio zen, baina Tolosan bizi da). Gustuko ditu Inauteriak, eta gaztea zenetik parte hartu izan du, mozorrotuz, elkartarekin edota karrozak eginez. Aurten ere karrozen artean topatu dugu Beloki Ferialekuan, kaldereroen bezperan, hain zuzen ere, kaldereroetarako karrozari azken ukituak ematen.

Inauteriak odolean dituen horietakoa al zara?

Asko gustatzen zaizkit Tolosako Inauteriak. Baina, egia esan, egun ez da lehen bezala, izan ere urteek aurrera egiten dute, eta ez dugu lehen izaten genuen indarra eta aldartea festarako. Horregatik, az-

ken urteetan herritik kanpora joan ohi naiz Inauterietan, Lanzarotera, hain zuzen.

Azken urteetako Inauterietan alde egin duzu, hortaz.

Bai, baina ez Inauterietako egun guztiak. Normalean Igandean, Zaldunitan, joan ohi gara. Pena handiarekin egiten dugu, baina behintzat igandera arte gozatu ahal dugu Inauteriaz.

Paletoz atera nintzeneko urtea dut gogoan; txerri batekin atera nintzen eta oroitzapen oso onak ditut

Zer gustatzen zaizu gehien jai hauetatik?

Guztia gustatzen zait, izan ere, gaindiezinak dira Inauteriak. **Baina, zer dute ba, desberdin egiten dituztenak?**

Giroa, paregabea da; bat batekotasuna da nagusi mozorroetan eta jendearen ikuskizun txikietan. Tolosako Inauterietan, bi txorakeria eginda barreak egiteko gai gara,

» **PASARTEAK**

- **1891.** Gobernuak sokamuturra bertan behera utzi zuen. Ondoren, 1934an, Txinparta elkarrearte sokamuturra berreskuratu zuen Inauterietarako.
- **1965.** Inauterietako Erreginaren hautaketa egin zuten lehen aldiz Tolosako Casinorean. 1993tik aurrera Ostiral Mehean ospatzen zen Fronton kafetegian. 2001. urtean, hautaketa hau kendu egin zuten egitarauatik. Udaberri taldeak proposaturik Galtzaundi pertsonaia ordezkatu zuen.
- **1978.** Arpegi taldeak lehen aldiz estreinatu zuen Ostiral Meheko jaialdia, Leidor aretoan.
- **1982.** Lehen aldiz Emakumezkoen Danborrada atera zen, Ostiral Mehean.

» **GAUR ZER?**

- **09:00.** Txarangen irteera.
- **10:30.** Plaza Berrian sokamuturra txarrogak alaituta.
- **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.
- **16:00.** Kalejira Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarrogekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazara.
- **16:30.** Zezenak Zezen Plazan; txarrogak arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.
- **19:00.** Dantzaldia Berdura Plazan Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarrogekin.
- **21:30.** Iturritxiki Plazatik zezen suzkoa irtingo da.
- **23:30.** Plaza Berrian Lain eta Hesian taldeen kontzertua
- **23:30.** Incansables eta Bonberenea txarrogak kalez kale.

» **GARRAIO PUBLIKOA**

- **TSST.** Eguneko zerbitzuak indartuko dira, bidaia kopurua eragotuz. Tolosara etortzeko, Donostia-Lasarte-Andoain-Villabona-Irura-Tolosa ibilbidean 21:15ean, 21:30ean, 21:45ean, 22:15ean eta 22:45ean aterako dira Donostiatik. Tolosatik aterako dira 00:00etan hasi eta 06:00ak arte orduro bialeatik, Irura-Villabona-Andoain-Lasarte ibilbidean. 00:00etatik 07:00etara orduro Añorga-Rekalde-Donostia ibilbidean.
- **Tolosaldea Bus.** Tolosa (Zumardi Txiki), Amartz, Ikaztegieta-Alegia-Amezketeta-Tolosa ibilbidea 00:00etan, 02:00etan eta 03:30ean. Tolosa (Zumardi Txiki), Ibarra, Berrobi, Eldua, Elduain, Berastegi 01:00etan, 02:45ean eta 04:15ean.
- **Hiribus.** 07:30etik 10:00etara ohiko ibilbidea egingo du (Santa Klara - Foruen etorbidea - Geltokia - Iurreamendiko errotonda - Iurre - Paper Eskola - Iurreamendi (beheko arkupea) - Usabal polikiroldegia - Usabal industrialdea - Amartz - Amartz 30 - San Blas - Iparragirre - Bizkaia kalea - Kondeaneko Aldapa 3 - Santa Klara - Klinika - Santa Klara) 30 minutuko maiztasunarekin. Ondoren, ibilbide motza egingo du, Zubiberrian hasi eta amaitzen dena, 10:30etatik 14:30etara eta 16:00etatik 22:00etara.
- **Trena.** Irurera: 01:00etan, 03:00etan, 05:00etan eta 05:55ean. Donostiara, 02:00etan, 03:50ean, 04:55ean. Brinkolara, 03:10ean, 05:20ean.

beste lekuetan, ordea, kanpokoari, itxurari, desfileei ematen diete garrantzia, horretan oinarritzen dira. **Zer mozorro duzu bereziki gogoan?**

Asko dira, madrildarrez, harropuzte edo txuloz, emakumez, Chaplinez... bai. Gogoan dut, bereziki, baldar edo paletoz atera gineneko urtea; ni txakurarekin atera ordez, txerrikume batekin atera nintzen, pentsa ze barreak. Oso oroitzapen onak ditut mozorro horrekin.

Mozorroa soilik, edota, mozorroekin batera pertsonaia irudikatu ere egiten zenuen?

Ba, denetarik izaten zen. Urdiña Txiki elkartekoarekin ateratzen ginen, eta urte batzuetan karroza ere egiten genuen. Bestela, hiru senar-emazte ere ateratzen ginen batera, guztriak mozorro berarekin. Baina, askotan mozorroa ateratzea ez zen nahikoa izaten, eta parodiak edo antzerkitxo txikiak ere egiten genituen. Oso ondo pasatzen genuen.

Ez baita nahikoa mozorro bat soilenean jartzea.

Ez. Eta, hain zuzen ere horixe da Inauteriek duten berezitasuna, ez dela soilik mozorroa erakustea, pertsonaia hori hartu behar duzu bere gain. Alde horretatik, gainera, ikusten dut urte urte hobetzea doala, herritarren parte-hartzea geroz eta handiagoa baita.





Pijama soinean, ongi etorri Inauteri!

Inauteriak » Ehunka lagun ibili ziren atzo goizean Musika Bandaren doinuetara saltoka eta dantzan, mozorroak janzten hasteko garaia zela iragarri.

ERREDAKZIOA

Jeiki! jeiki! ohi hortatik gaur tolosarrak, Inauteriak beti, alaitzen gaitu guztiz... kantu hau egun guztian zehar buruan sartuta izango dute tolosar askok. Hau izan baita beraien iratzargailua. Kanpotar ugari harrituta geratuko dira ziurrenik, horrenbeste jende, goizean goiz kantu honen erritmora dantzan ikustean, baina Tolosako Inauterien baitan, xarma handienetakoa duen ekitaldia da Dianarena, eta gero eta jende gehiago animatzen da parte hartzera.

Tolosako Musika Bandak alai-

tuta, Alde Zaharreko kaleak zeharkatu zituzten atzo ere ehunka lagunek, saltoka eta dantzan. Gehienak pijama soinean zutela eta txapiñak jantzita atera ziren kalera, oraindik ere azken ametsa gogoan zutela. Beste batzuk berriz, Inauteri hauetako lehen mozorroarekin.

Esnatzen laguntzeko elixir magikoa zutenak ere baziren. Min guztiak sendatzeko eta aje guztiak kentzeko balio omen du edari horrek, eta jende artean banatu zuten Inauteri hauetan zorte ona izateko denek.



Behin eta berriro astindu zituzten instrumentuak Tolosako Udal Musika Bandakoek, jendea ohetik altxatzeko. E. EZEIZA



Min guztiak kentzen zituen elixir magikoa banatu zuten batzuek. E. EZEIZA



Gero eta jende gehiago hurbiltzen da Dianara. E. EZEIZA



Jende ilara luzeak osatu ziren, Alde Zaharrean. E. EZEIZA



Gauetz entzun dira azken danborkadak

AISIA ● Arratsaldean, 17:00ak inguruan hasi ziren entzuten Tolosako kaleetan, herenegun, danbor soinuak, eta goizaldera arte ez ziren gelditu. Izan ere, Konpainia Ingelesakoak eta Berazubiko elkartekoak urteetako ohiturari jarraituz afalostean atera ziren kalera. Iluntzeko saioan ez bezala, ordutegi eta ibilbide finkorik gabe astinduzituzten danborrak, bi taldeek. Honenbestez, ekitaldi honetara jende gehiago gerturatzeko aldaketak egin baldin badira ere, tradizioa mantenduko dela erakutsi zuten danbor jotzaileek. Orain, berriro iskin batean utzita daude danborrak, eta datorren urtera arte ez da hauen oihartzunik entzungo. R.C



BAKARRAK MUNDUAN



Rociotik Tolosaraino etorri ziren batzuk astoz. Masabi tribuko parrandazaleek euren pub-a zabaldu zuten. Mila eta bat gau dantzan pasatako arabiarrek atsedean hartzeko ere ez zuten denborarik eduki. Iraultzaren Abeldura Txikiro Trenak geldialdia egin zuten. Eta hau dena Tolosaiko Inauterietan. ESTRELLA A. MAIZ

Karrozak eta konpartsak
Inoiz baino talde gehiago ateratzen dira aurten kaleera Zalduntzan, gaur aisialdi taldeen txanda izango da.

NLATARURU / A. MAIZ

Z arena ahaztu eta besteen azalean jartzeko eguna zen atzokoak. Animaliak, pertsonaia famatuak, objektuak... Edozer izan zatezke Inauterietan. Gaurkoak ere horretarako proposa da eta biharkoa ere hainakoa izango da, indarrik gertatzen bada, behintzat.

Azkoari erreparatu gero, kolorez jantzi zituzten taldeek Tolosa kaleak. Aurtengo partidetza inoiz baino handiagoa izan da, gainera 250 talde inguru, hain zuzen, kultur batzordeak zehaztu bezala. Zerbakiak zenbaki, giro bikaina jarri zuten gutxiak, Inauterietan benetako filosofian margidurik.

Karroza handiak, ikusgarriak agian, ibilbide berria egin behar izan zuten, jadanik ozagunak diren kolektiboen lanak direla eta. Ez zen atzokoak izan eta antzerki bidez batzuk, dantza bidez besteak, algarra eta uneren artea harritu zuten.

Egunaldiaren bedar ere bazuten inauterizaleak, jakina den bezala, benetako festa kalean dago eta. Hozta bai, baina orain behintzat ez zuten karrozen eta konpartsen desfilak zapuztu atzoko egun osoan zehar.



Ere ereginak panela frontoiaren gainean jarri zuten, ikusgarria. Teroeak bertiz, bi belarri irabazi ostean, besotetan zeharkatu zuten herris. ESTRELLA



Jaka eta heriotza lotuz elkarren kanpoan. Urtero bezala San Frantziskoren burutako izugarriak Rosi ziren. COMPAZ

Idea ugari kalera
Krisia Tolosa bertsara heldu zen atzokoan; Fama, tribuak, pailazak, tereak, Roziko jaitak astoz etorritako ondareak... Ideia ugari ateratzen kalera, zein baino zein landuago, baina gutxiak bihurtuak. Horrexegatik dira Tolosa ikusgarri bakarrak munduan...

Karroza handien ibilbidea

Karroza handiek bihar ere euren etxeetako ibilbidea egingo dute (Orta - San Frantzisko - Foruen Etorbidea - Nafarroa Etorbidea). Karroza handiak toki jakin bat du bere emanaldiari hasiera emateko eta 11:00etarako toki horretan egon behar du. Ondoren, emanaldia egiteko ibilbidea zehar mugatzen joango dira.

KARROZA HANDIAK

- **Tisooetan** - Tren Iraultzailea.
- **San Inazio kalearen ondoan** - Anosteko Monje Garzteak.
- **Gelak Irupuram** - Circus.
- **Oria Hotsa** - Leca Akademia de Fama.
- **Irintzi Taberna** - Holandarrak.
- **Iñale Taberna** - Disko Gospel.
- **Kantabriko Taberna** - Apatia Street.
- **San Sebastian Arrandegia** - Tolosaiko S. Piztzelek.
- **Foruen Etorbidearen erdian** - TAC/DC Zuzenean.
- **Foruen bidigurutzean** - Salobia.



Jakoen artean belaraldi ezberdinak elkaru ziren konpartsetan. ESTRELLA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Veleta-Aiz Orratz, Inauteriei begira

Urteurrena » Haurrei arreta handiena ematen dion elkarte da: Haur Danborrada, Haur Jaialdia, txaranga,... antolatzen ditu.

JOXEMI SAIZAR

Inauterietako ekitaldi jakin batzuekin erabat lotuta agertzen zaigu tolosarroi aurten 75 urte beteko dituen Veleta-Aiz Orratz elkarteak: Haur Jaialdia, Haur Danborrada, txaranga eta konpartsa. Bistakoa denez, protagonismo handia du herriko jai jendetsuetan. Beste berezitasun bat ere azpimarra daiteke: umekin langheien egiten duen Tolosako elkarteak izango da seguraski, lehen aipaturiko ekitaldi horien artean guztien artean.

Hasiera-hasieratik atera ditu Veleta-Aiz Orratzek konpartsak Inauterietan. Aurten ere izango da festan, 25. eta 50. urtemugetan aterako konpartsa errepikatuz: Jostuntxoaren Batailoia. Ateratzen diren guztiak bazkideak izaten dira, normalean, eta aurten ia 60 elkartuko dira, txaranga eta guzti, unearen berezitasuna dela eta. Azken 25 urte hauetan jarraian atera dituzte konpartsak, hutsik egin gabe. Ez dago hori esan dezakeen elkarte tolosar askorik. Horren aurretik ere makina bat atera zituzten: Klinika (1932), Astronomoak (1934), Zorrozkileak (1935), Beltzak (1936)...

Jantzi oso dotoreak eta landuak

Azken 25 urteotako konpartsak ezaugarri hauek betetzen dituela esan daiteke: jantzi oso dotore eta landuak, tramankulu handirik ez, batzuetan dantzatu edo abestu, xexen txiki bat ere hiru aldiz atera dute (eta gero jan, noski)... «Inauterietan abestea oso zaila da, megafonia eta beste soinuekin ez delako batera entzuten. Megafonia txiki bat ateratzen bukatu beharko dugu. Bestalde, jendaurrean hitz egiteko inor ez da animatzen hasieran, baina bukaera aldera...», dio Iñaki Ormazabal lehendakariak. Ezaugarri horiekin atera dituzte Can-can, Cruzada Eucaristica,



Lan handia egiten du Aiz Orratz Veleta elkarteak Inauterietan; aurten ere Jostuntxoaren Batailoia aterako dute. HITZA

Eva Nasarrerren dantzariak, Ulahop dantza, Bonbero torero, Manolak, Gurrutxagaren potolak, Turistak, Aragoiko jotak, Zapatariak, Rabino judutarrak, San Fermin, Urte Berriko kontzertua, Madrid castizo, Cadizeko txirigotak, Galegoak, Haur danborrada, Mary

Poppins, El Rocio (karroza asto, ama birjina eta guzti Shanti tabernan sartu zuten), New Orleanseko hiletak, Koyote, Praileak, Greziarrak eta Arabiarrak. Iaz berriz, aurteko urteetako jantzien bilduma egin zuten, partaide bakoitzak bat jantziz.

Lehendabiziko Haur Danborrada, 1962an

Haur festa antolatzen duela berrogei bat urte hasi ziren. 1962an, Haur Danborrada antolatu zuen Veleta-Aiz Orratzek lehen aldiz, Luis Collado bazkidearen bultzadapean. Pixkanaka handitzen eta

hobetzen joan zen eta azken aldaketa Astelenitatik Zaldunita Bezerara pasatzea izan zen. «Aisialdi taldeen eskaera bati erantzun genion, tokirik ez zitzaielako gelditzen. Probatu eta ondo atera zen. Nire ustez asmatu genuen. Gainera, horrela gu ere libreago gelditzen gara egun horretarako», gogoratzen du Iñaki Ormazabala lehendakariak.

Inauteriek inbuktatzeko, txaran-

Aurten 25. eta 50. urteurrenako mozorro berbera aterako dute: Jostuntxoaren Batailoia

Iaz aurreko urteetako jantzien bilduma egin zuten, partaide bakoitzak bat jantzi zuelarik

Aisialdi taldeen eskaerari jarraituz, Astelenitaik Zaldunita Bezerara pasatu zuten Haur Danborrada

ga aipatu behar da. 1943ean atera zen lehen aldiz Esteban Eloiaren zuzendaritzapean. Hainbat jantzi eta zuzendari ezagutu ditu bere historian, baina beti erreferentia izan da Tolosako txarangen artean. Elkartearen piezaren inguruan, berezitasun baten berri izan dute duela gutxi: batere erregistratu gabe zegoen eta elkarteara zela uste zuten, Juan Colmenerok eta Eustaquio Garatek egina enkarguz, baina berriki jakin dute lehen zatia Gerra Zibileko Euzko Indarra batailoiaresan ereserki dela, Goenagarena. Behar bezala erregistratzen ahaleginduko dira aurten.

Inauterietan gain, arraunetan ere asko nabarmendu zen urte luzetan Veleta-Aiz Orratz elkarteak, herriko batel estropadez gain, Euskal Herriko eta Espainiako hainbat txapelketa irabaziz.

Elkarteak osasuntsu dago, beti bezala 100 bazkideko kopurua mantenduz, egoitza propioarekin, gazte jendearekin, martxa handiarekin, asmo handiekin. Urtean zehar konprobatzeko aukera izango dugu.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle



Abaltzisketako txantxoak, dantzatzen. Aurten ez dute plazan makilik hautsi, baina ez da izan saiatu ez direlako... N.U.



Talai dantzariak Amezetan: talde handia elkartu zen atzo. N.U.



Hamaiketakoa egitera ere dantzan sartu ziren amezketarrak, aurretiko zegoena oztopoa izan gabe. N. URBIZU



Mezaren ondoren egin zuten txantxoek herriguneko lehen saioa. N.U.



Ikusmina handia zen Abaltzisketan, gutxienez lau argazkilari baitzeuden. Eskuinean, Amezetako makilik airean. N.U.

Txindokipeko makil hotsak

Inauteriak » Abaltzisketan eta Amezetan atzo goizean zehar euren makil-dantzak egin zituzten: txantxoena eta talaiena, hurrenez hurren.

NEREA URBIZU

Amezetan eta Abaltzisketan soilik dantzatzen den dantzaren txanda izan zen atzo bi herrietan: Inauteriei, dagokiona, hain zuzen. Amezetan talai-dantzariak ari-

tzen dira eta Abaltzisketan txantxoak. Musika berdintsuarekin aritzen dira, baina pausoei dagokionez, aldaera txiki batzuk badituzte. Erritmoaren aldetik, Abaltzisketan mantxoago egiten dute

guztia. Bietan ere, herriko gazte batzuk hartzen dute parte eta etxe etxe eskean aritzen dira. Zalaparta pixka bat eginez doazenez, erraza da jakitea nondik dabil-tzan...

Abaltzisketako txantxoek mezaren garaian gosaltzen dute, indarberritzeko, eta Amezetan, 11:30ak aldera hartzen dute atsedena, hauek ere, hamaiketakoa egiteko, noski. Izan ere, bi herrietan

bazkaltzeko garaira arte edo, aritzen dira. Bietan ere baserriak eta etxeak soberan dituzte, dantza eskaintzeko.

Talaiak gaur ere bai

Gaur goizean goizetik hasita talaietako batzuk herriko goiko baserrietara joango dira eta beste batzuk, berriz, Bedaio aldera. 08:30ak inguruan abiatuko dira makil hotsekin.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Garbiketak.** Bigi garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest gaude. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 638 944 604 edo 695 708 271 telefono zenbakietara.



GOIZA	ESTALIA
ARRATS.	EGUZKIA
BEROENA	9°
HOTZENA	2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldekoko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Karrozen eta konpartsan arrakasta

250 karroza eta konpartsa irten dira orotara aurtengo Inauterietan kalera, iazko zembakia gaindituz. Urtetik urtera herritarren partehartzea handiagoa da, eta azken batean, horretan oinarritzen den jai batzuetan, hauek indartzea dakar. Ea ba, azken urteetako joera mantentzen den. e.e

Gaztelania gehiago entzuten da

Euskara gero eta leku gehiago hartzen ari den arren, oraindik ere karroza eta konpartsa askotan gaztelaniaren presentzia nabarieragoa da. Egia da askotan ohiturak aldatzea zaila izaten dela, baina kontua da euskaraz ere umorea berdin berdin landu daitekeela. Irudian ikusten den bezala, bai euskaraz bai eta gaztelaniaz jartzea izan daiteke irtenbide bat. a.i.

Arrospide eta Azurmendi, maila ona baina ez dute txapela irabazi

Herri kirolak » Olano-Saralegi leitzarrek Bigarren Mailako Aizkora Txapelketa irabazi zuten «maila ona» emanez.

ERREDAKZIOA

Arrospide-Azurmendi bikoteak atzo ez zuen Urrezko Aizkora Txapelketa irabazterik izan Azepeitian. Lehia «gogorra» izan zen eta baita parekatua ere. Larretxea eta Atutxa izan dira aurtengo garaileak.

Olano-Saralegi bikote leitzarra bigarren mailan aritu zen eta txapela eskuratu zuten, «oso maila ona» emanez. Estua izan zen atzo proba. 17 segundora Kañamares-Erasun bikoteak amaitu zuen.

Perurenak 295 kilo altza ditu

Bestalde, Inaxio Perurenak Azpeitiako frontoian 295 kiloko harria bizkar gainean jartzea lortu zuen. Asteasun egin zuen saiakera baina ezin izan zuen orduan.

A Agurrak



Urte askoan!

Iosu Azkue Arsuaga (Irura).
Gaur 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Urte askoan!

Amalur Beloki Tobar (Alegia).
Gaur 4 urte. Zorionak eta muxuak Garazi eta familiaren partetik.



Urte askoan!

Eñaut Otegi Lasa (Alegia).
Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Urte askoan!

Alitzo (Alitzo). Gaur 3 urte.
Muxu goxoak etxeokoen partetik.



Urte askoan!

Martin Balda (Alegia).
Zorionak aita eta urte askotarako.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...